

Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan

(1 - sarrera eta lehen galdera-sortak)

KOLDO ARTOLA*

Iragan 1980. urtearen inguruan eta baita, handik aurrera, Donostiako Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografi Mintegiko lagun-talde bat hainbat inkesta biltzen aritu ginen denboran ere –emaitzak *Euskalerriko Atlas Etnolinguistika (EAEL)* deitu lanean argitaratu ziren– hegoaldeko goi-nafarreraren esparruan saiatu ginen bereziki lekuoak biltzen, lurralte zabala horretako euskara azkenetan zegoela ikusita. Esparru honetaz hitz egitean eta, areago, honi honelako deitura ematean, Louis-Lucien Bonapartek 1863. urtean argitaratu zuen mapan agertzen den sailkapenari –hots, hark berak asmatu eta eraibili zuenari– jarraitu besterik ez dugu egingo.

Horrela, bada, aipatu esparruko zenbait ibarretan hainbat lagun aurkitu genuen, kasu batzuetan gogotik saiatu ondoren. Oraingo lan honetan haietako biri bildu material batzuk ekarriko ditugu orri hauetara, lehen aipatu inkestak bukatu ondoren bioi ere egin genien bestelako baten emaitzak agerian uzteko. Oraingo inuesta hau José Estornés Lasa zenak 1982an argitaratu zuen “Erronkari”ko uskaraz elestak / Fraseología roncalesa” izenburuko lan interesarria egiteko baliatu zuena da (*FLV*, 40), egileak berak gerora, “Erronkariko uskara” izeneko bere gramatika txikia egiteko, neurri on batean erabilia.

Bilketa-lanak 1984-92 urteen arteko epean egin genituen, pixkanaka-pixkanaka, hainbat ikustaldi goxotan, berriemaileak lagun abegitsu bezain parentziatsu hauek izan zirela:

1. Saturnino Etxamendi Larrea, Arrieta herriko artzibartarra, 1901an *Marterena* etxearen sortua; ama etxe berekoa izan zuen eta aita Hiriberrri auzo-herrikoa; eta

* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa.

Esker biziak ematen dizkiot, arazo gehienbat gramatikalak direla-eta, laguntzaile izan dudan Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziatura.

2. Joaquín Garrues Goñi, Ilurdotz herriko esteribartarra, 1895an *Iturratze* etxean sortua; aita etxe berekoa izan zuen eta ama hurbileko Beltzunegi herrixkakoa, gaur egun birrindua.

Berriemaileok eman eta orri hauetara ekarriko ditugun datuetarik batzuk, baina, lehenago ere, aurrekari gisa edo, gure “Hegoaldeko goi-nafarraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)” izeneko lanean (*FLV*, 60) argitaratu ziren, 1992. urtean.

Bilketa hau egitea lehen aipatu Bonaparteren mapan ikusiriko sailkapena kontuan izanik otu zitzaigun. Kontua da printze euskaltzaleak gure hizkuntzaren hedadura eta tokian tokiko egoera zein euskalkiak sailkatzeko argitaratu zuen mapan hiru azpieuskalki ikusi uste izan zuela “hegoaldeko goi-nafarrera” deitu zion eremu zabalaren baitan: *mendebaldekoa* eta *ekialdekoa* dei genitzakeenak (printzeak “ultrapamplonés” eta “cispamplonés” deitu zituenak), eta *Izarbeibarkoa*. Ekialdeko edo “cispamplonés” hori, gero, bost aldaera edo barietatetan zatitu zuen, horien arteko bat, “Artzibarko aldaera” izenez ezagutzen dena, hain zuzen, lan honen funtsa dela.

Printzeak, baina, ez zuen izendapen honen barruan Artzibarko mintzamoldea soilik sartu, honako lurralteetako hizkerak gehitu baitzizkion horri: Orotz-Betelukoa (1845. urte arte Artzibarko administraziopean egona), Arriagaitikoa (gure egunotan Lizoain ibarrari egokitua), eta hego-Esteribarkoa (Sarasibar, Tirapegiko baseria eta Larrasoña nolabait mugatzera datorren lerrotik-edo beheiti).

Aipatu esparruan, beste inon baino gehiago agian, zerbait egiten saiatzea interesgarria eta are beharrezkoa iruditu zitzaigun, hango euskararen egoera zernolakoa zen ikusirik. Artzibarko euskara, gainera, ekialdetik behaturik, Aezkoakotik aski hurbil dago eta, mendebaldetik ikusita –Bonaparteren sailkapena kontuan harturik beti ere– Egues ibarrekotik, euskal letretarako hain esanguratsua izan den Elkano herria ibar honetan kokatzen dela.

Kontua da gainera, ezen, hala nola euskalki honi dagozkion beste zenbait ibarretan badiren oraindik orain lauzpabost herri non, nahi izanez gero, zenbait bilketa-lan egin litekeen, beldur gara hona dakartzagun herriotan eta hauexen ingurukoetan halakorik jada ezinezkoa izatea. Premia, beraz, leku horietan guztietan oso larria izanik ere oraingo hauetan are haundiagoa zen, zerbait bildu nahi baldin bazen behintzat.

LAN HONI EMAN BEHARREKO IZENBURUA DELA-ETA

Zalantzak izan ditugu lan honi izenburua ematerakoan. “Artzibarko euskal aldaeraren inguruan” moduko bat otu zitzaigun aurrenik, inkestok egin genituen denboran Bonaparteren sailkapena gogoan genuela eta kontuan izanik, gainera, Artzibarren eta hego-Esteribarren arteko zubi-edo egiten duen Arriagaiti ibarreko herriren batean ere berriemaileren bat aurkitzeko itxaropena genuela: Galdurotz herrixkako Jesús Garde Carrascón izan zitekeen horretarako lagun aproposa, antza, harekiko genuen erreferentziaren arabera, baina, batzuetan gerta ohi den bezala, harengana iristean gure ustea ustel geratu zen, geure lagunak bere burua zuritu besterik ez baitzuen egin euskara ahantzia zuela esateraino.

Horiek horrela izanagatik, azken urteotan Bonaparteren sailkapena ez bakarrik zalantzatan jarri, aldian aldian mutua handiko proposamenak egitera

iritsi diren ospe handiko ikerlariak plazaratu zaizkigu, beren argudioak printzeak erabili zituenak baino datu gehiagorekin kontrastatu ondoren. Horrela, ia mende eta erdiko sailkapen harekiko hainbat zuzenketa proposatuak izan dira, euskalki, azpieuskalki eta aldaeren arteko mugak neurri esanguratsu batean mugitu eta, zenbait kasutan, are birsortzeraino ere. Hauen artean, eta lan honetan ukitzen ari garen lurraldeari gagozkiola zehazki, aditu pare baten izenak datozkigu burura: Orreaga Ibarra eta Iñaki Camino. Biak dira irakasle eta ikerle trebeak, euskal filologian doktore izateaz gainera.

Ibarra Mezkirizko erroibartarrak Ultzama inguruko euskara ikertu zuen duela jada hamabi bat urte eta Erroibar-Esteribarkoa¹ ondoren, printzearen sailkapenarekiko zenbait idarokizun plazaratzu.

Camino donostiarak, hamaika ikerketa-lan sakonen egile denak, Aezkoako euskara aztertu zuen lehen eta “Hego-Nafarrera” deitu duen esparruko hizkerak hurren², azken hauen baitan –eta gure oraingo lan honi dagokion neurrian– zenbait bereizketa eginez edo, nahiago bada, iradokiz. Haren iduriko Artzibarko euskara hego-Esteribarkoarekin ez, Eguesibarkoarekin uztartru beharko litzateke. Horretarako ematen dituen arrazoiaik egokiak iruditzen zaizkigu, lan honetan agertuz joango diren materialek hori ondorioztatzeko zioa ematen baitute, gure uste apalean behintzat.

Koldo Zuazo irakasle eta ikerle eibartarrak ere izan du zeresan garrantzitsurik azken urteotan, Bonaparteren sailkapen ezaguna era nabarmenean ukitu duenean³. Askoz lehenago, baina, Azkue handiak euskalkien birdefinizioa egin zuen eta, gure egunotan, neurri apalago batean izan bada ere, Yrizarrek, aditzean oinarriturik, zenbait aldaketa egin du Bonaparteren oso jarraitzale leiala izan arren⁴.

Yrizar, hala ere, Bonaparte baino urrunago joan da mintzaira desberdinen arteko mugak marraztean, printzeak kontuan hartu zituen euskalki, azpieuskalki eta aldaerez haratago, azken hauen azpialdaerak iradokiz. Honela printzearentzat Artzibarko euskara zena, adibidez, bitan banatu du, iparraldekoa bata eta hegoaldekoa bestea, lehenaren baitan Lusarreta, Saragueta, Hiriberri, Arrieta, Imizkotz, Gorraitz, Oroz-Betelu –Olaldea bere auzoarekin– eta Azparren izeneko herriak sartuz, gainerakoetatik berezita.

Azken hauen artean, baina, ustez XIX. mendearren erdialdean Juan Cruz Elizaldek idatzi zuen dotrinatik landa datu gutxi ezagutzen da, guri dagokigunez Espotz herrian sortu Manuel Zazpe Garde jaunari 1985-86 urteetan bildu genizkion batzuk, erkaketarako baliagarriak izan daitezkeen neurrian, aipatuko ditugula.

¹ Ikus, esaterako, *Ultzamako hizkera eta Erroibarko eta Esteribarko hizkera*.

² Ikus, bereziki, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa* eta *Hego-Nafarrera*.

³ Ikus *Euskalkiak gaur*.

⁴ Hots, inoiz edo behin, kasua oso garbi ikusi uste zuenean, Bonapartek finkaturiko mugak aldatu zituen, Luzaide, Arnegi eta Baigorriko kantonamenduari egokituriko lau herri txiki mendebaldeko behe-nafarreratik atera eta ekialdekoratik aigarotzen bezala, adibidez. Aldaketok gutxitan egin zituen halere: Anueko hegoaldean bildu genituen datuak begibista aurrean izaki, ibar honetako herri batzuk Olaibarko aldaerara –hegoaldeko goi-nafarrerara, beraz– igarotzeko egin genion idarokizun apalak ez zuen bide egin, ez baitzitzaizkion hainbesterainokoak iruditu eta, esan bezala, gauzak oso garbi ikusi ezean, nahiago izaten zuen printzearen sailkapena ez ukitu.

Esteribarko euskarari dagokionez, berriz, printzeak Artzibarko aldaeraren barruan sartu zituen herriak izan ezik, Erroibarkoarenan utzi zituen gainerakoak bi azpialdaeratan banatu ditu Yrizarrek, Erroibarko herriak lau azpialdaera desberdinetan banatzeaz ere gainera, haren *Morfología del verbo auxiliar altonavarro meridional* izenburuko liburuan ikus daitekeenez.

Arestiko proposamen hauen guztien aurrean, bada, ez gara ausartu, eskuartean dugun lanari izenburua ematerakoan, lehendik pentsaturiko hura ematen, eta hautatu diogunari ere trabaren bat jar dakiokela jakitun gara, Yrizarren aipatu *Morfología*-n hark berak taxutu azpialdaerak kontuan izanik, “Ipar-Artzibarko eta hego-Esteribarko...” izan beharko baitzuen, gutxienez, idatzi beharrekoak.

INKESTAREN NOLAKOTASUNA

Inkesta honek baditu gure ustez –gainerako gehienek bezala, bide batez esanik– bere alde onak eta ez hain onak, azken hauen artean erantzuten errazak ez diren galdera bitxi samar batzuk. Honek ekarri zaitasunak agerian geratu dira, urte askotan ia batere mintzatu gabe egon ondoren, berriemaile hauek erakutsi duten maila urri samarrarekin zein hainbat gabeziarekin. Galdera-sorta desberdinetan badira, gainera, bitan-edo errepikaturiko galderak, baina, hala eta guztiz ere, emaitzek ekarpen aski duina eta zer baliaturik asko dakartelakoan gaude.

Inkestak dituen alde txarren artean –eta gauza bera esan daiteke hasieran aipatu *EAEL*-eko lehen zatian agerturiko galdera luze samar batzueta – zera dakusagu: galderak erdaraz eginda egotean, erantzuleak bere burua estutu eta itzulpen bat egitera behartzen du halako moduan non, esan beharrekoa askatasun osoz –inolako galderari erantzunik eman behar izan gabe– bere kasa esan balu, kasu askotan oso beste era batera esango zukeen.

Alde ona, beti ere gure uste apalaren arabera, hainbat lagunek –kasu honetan bikote bat besterik ez bada ere– gauza bat berari buruzko erantzuna ematen diotenekoa da, haien osteko zernahi erkaketarako biziki interesgarria eta are aberatsa gerta daitekeena. Horra, bada, geure iduriko, erdaraz prestaturiko galdera-sorta hauetako txanpon bereko bi alderdiak.

BERRIEMAILEEZ ZERBAIT

Arrietako informatzailearen berri eta haren helbidea Artzibarko Saragüeta herrian –*Sauta* esaten zuen berak– eman ziguten. Burlatan bizi zen ezagutu genuenean, 1981ean, handik gutxira Barañaina aldatu bazen ere. Oso irekia eta adeitsua zen benetan eta hala berak nola familia osoak goxoki hartu gintuzten beti. Saturnino gure gizona Erroibarko Esnotza ezkondu bazen ere, ez dugu uste honek eragin nabarmenik ekarri zionik haren euskarari, ezagutzen ere iritsi ginen harenen emaztea euskalduna izanagatik ere, ez bide zu telako beren artean ia ezer hitz egin –euskararen galera, bigarren gudate karlistatik honuntza bereziki, oso abiadura handitan garatu zen ibar horietan guztietan–, hauen seme-alabek, kasu, ez baitzuten ikasi. Horregatik diogu Saturninok erakutsiriko hizkera Arrieta bere sorlekukoa dela, ttiki-ttikitatik haren gurasoengandik ikasi eta gazte-denboran, ezkondu aitzin batez ere, orduko hango euskaldunekin erabilia.

Ilurdozko berriemailearen berri, berriz, Olaibarko Olaitz herriko *Perorená* etxeko Makirriain Oiartzun anai-arrebek eman ziguten, adiskide hauei, lehenxeago, Esteribarko Zuriainen zer aditu genuen aipatu eta gero; izan ere herri honetako 45 urte inguruoko gizon batek, behin, mutil kozkorretan Ilurdozdozko festetara joanik, hango adinekoak karta-jokoan zeudela euskaraz entzun zituela esan baitzigan.

Puntu honetara iritsita ezinbestekoa zaigu Aingeru Irigaray zenak, Apat-Echebarne deiturapean 1974an argitaratu zuen “Una historia diacrónica del Euskara en Navarra” izenburuko lana aipatzea; honen arabera, 1935ean, Ilurdotz III gradoan baitzegoen: “los de 30 años lo saben pero no lo usan; los de 50, sí”. Hots, handik hona igaro denborarekiko egokitzapena eginik, bazirudien Ilurdotzen oraindik orain adineko euskaldunen bat gera zitekeela, baina herri Joan eta Zertxobait ulertzen zuen gizonen bat kenduta, inork ezin eman izan zigun ezeren berri handirik. Olaizko adiskideek, orduan, haien us-tez euskara bide zekien gure lagunaren izena eta helbidea eman ziguten, zeina 1981eko abenduan bisitatu genuen lenhendabikoz Iruñeko Aita Salestarrren egoitzan, komunitate horretako fraidea baitzen.

Harengana hurbiltzean, hark, hasieran, oso gutxi zekielakoan edo, ukatu egin zuen euskara jakitea; geuk, baina, “Pues me habían dicho que usted ya sabía” esan genionean, hark, “No, no... bien, no; nunca aprendí bien; con algún vasco-vasco que no sabía nada de castellano tenía que hablarle yo también, en vasco, pero no demasiado...” erantzun zuen; hots, gurasoek bai, egin izan zutela eta berak ulertu bai, horrenbestetxo egiten zuela, hau bezalako kасuetan erabili ohi diren aitzakiak erabiliz, bidenabar esanik.

Guk, baina, ez genuen hain apropoza zirudien aukera galduzat eman nahi izan eta, gaztelaniaz bazen ere, zerbait kontarazi nahi izan genion, ea hitz bat edo bestetik argi pixka bat egiten zen. Zeregin horretan geundela galdetu genion ea oroitzen zen bere etxean, mutikoa zelarik, nola egiten zuten ‘matatxerria’. Hitz honek grazia egin bide zion, edo denbora hartako oroitza-pen bat ekarri, auskalo, irri egin baitzuen, zera esanez: *bier, bier dugu... matatxérri!* Hor erakutsi zuen ulertu baino gehiago ere, jakin, zerbait bazkiela; hortik aurrera, guk horretara bultzaturik, hasi zen mintzatzen, oso astiro hasieran, parentesi luzeak eginez eta gaztelaniazko zati luzeak noiznahi tartekatuz gero, baina pazientzia pixka batekin eta handik aurrera bisita asko samar eginez –oso abegikorra zela baliatuz beti ere– bildu ahal izan genion informazio aski zabala.

ALDAERA EDO BARIETATE HAUEK ERKATZEKO DATU BATZUK

Galde-erantzunak ematen hasi aurretik mintzairak hauetan berezkoak diruditen ezaugarri batzuk hona ekarri nahi genituzke, direnak oro aipatuko ez baditugu ere:

Arrieta -i eta -u erakusten duten silabek mugatzailea hartzean -a dugu ondorioa: *euria, xuria, aurpegia, opila, zikina, auntza, sua, larrua, tipula, elurra...* adibidez. Gainera, eta hori aski ez bailitzan, erdizkako zein erabateko irekiera agerian jartzen duten *anaëa, artzaëa, aragëa, errotazaëa, loea eta bea* moduko hitzak aditu ditugu.

Ilurdozko adibideak bestelakoak dira: *eurie, zurie, aurpegie, opile, zikine (zikiñe ere bai), auntze, subea* ('sube' oinarri hartuta, ondorioz batzuetan

subea edota *subia* ere aditzen dena), *larrue*, *tipule*, *elurre*... eta baita, Arrieta ez bezala, *beie* (*bea* ere bai), *loie*, *anaie*, *artzaie* eta *errotazarie* gisako hitzak.

Ilurdozko joera, zentzu honetan, berebizia da: *in gebe eta gizonei kebe* moduko adibideak ikus ditzakegu eta baita *-kara* gisako atzizkia *-kera* bihurturik, are atxikitzen zaion hitza erdal mailegua izanik ere: *debilkera*.

Gehigarri gisa Artzibarko Manuel Zazpe espoztarrari bildu eta arazo honekin zerikusia duten hitz batzuk aipatuko ditugu, *i + a* gisako kasuak aurrenik: *mia*, *aria*, *berria*, *garia*, *ardia*, *bearria*, *txinurria*, *itaia*, *euria*, *gorria*, *aundia*, *ipurdia*, *apitxia*, *pixa*, *ezpana*, *bida*, *aita*, *goitira*, *pollita*, *ilarra*, *yeiki da* eta *erdi da*... baina baita honakoak ere: *begie*, *atarie*, *txorie*, *emastikie*, *zaldie*, *idie*, *ulie*, *tzerrie*, *zorrie*, *txipie*, *iruzkie*, *ilargie*, *aragie*, *ogie*, *makile*, *itsusie*, *zurie*, *ongarrie*, *burdiñe*, *tsutik deo* eta *gisatui deo*. Badugu orobat bi eratara aditutako zenbait hitz: *nausia / nausie*, *titia / titie*, *erria / errie*, *bazkaria / bazkarie*, *mila / mile*, eta *izerdia / izerdie*, adibidez.

Kasu honetan, *i + a*-ren arteko loturari dagokionean hain zuzen, Espotz herrixka, Arrietatik hegomorebaldera eta, neurri batean, Ilurdotzrako norabidean kokaturik egoteagatik agian, bi herri hauen arteko transizio-gunea ote den iruditzen zaigu, gainerakoetan artzibartarrago daku-sagula esteribartar baino.

Hona, diogunaren frogagarri, *u + a* elkartzetik Espotzen ditugun adibide batzuk: *burua*, *gatua*, *buzua*, *merkatua*, *zerua*, *negua*, *ura*, *sua*, *lengusa*, *larrua*, *zula*, *lurra*, *egurra*, *ezurra*, *atzurra*, *tzakurra*, *sudurra*, *llagurra*, *eguna*, *belauna* eta *auntza*, gure datuetan *eskue* eta *zukue* moduko sal-buespenen bat agerturik ere.

Arrieta *-e* bokalak artikulua hartu duenean hura aski ongi mantendu da: *etxea*, *bertzea*, *eltzea*, *semea*, *maitea*, *alkatea*, *tenorea*, *maztea*, *bakea*, *motzaleak*, *bidea*, *luzea* (inoiz *luzëa* modukoren bat entzun badaiteke ere), *umea* eta *iendea* ('igandea'), adibidez.

Ilurdotzen joera hori ez da horrenbeste mantendu, zeren *-ea* bukaerako hitz mugatu asko eta asko –*etxea*, *bertzea* eta *semea*, adibidez, bakarren batzuk aipatzeagatik–, noiznahi *etxëa*, *bertzëa*, eta *semëa / semia* bihurturik aurkitzen baititugu, *bidia*, *umia*, *luzia* eta *igendia* moduko emaitzak ere oso ohikoak direla.

Artikuluari eransten zaion bokala *-o* denean, Ilurdozkoak ez du hau *-u* bihurtzeko hainbesterainoko joerarik erakusten. Arrietako kasuak dira, dena dela, *beroa*, *aboia / agoa*, *besoa*, *biloa*, *astoia*, *ostoa*, *gaixtoa / gaixtöa*, *leoa*, *tabakoa* eta *kontribuzioa*. Ilurdozkoak, berriz, *beroa*, *agoa*, *besoa*, *biloa*, *astoia*, *ostoa / ostöa / ostroa*, *gaiztoa / gaiztua*, *leyoa / leyua* eta *tabaköa*.

Hau da, oro har, kasu hauetan nabaritzen den joera nagusia, inoiz edo behin joera hauxe haustera datorren bukaeraren batekin topo egiten badugu ere.

Hau dela eta, Espozko gure lagunari bildu genizkion oharretan joera bateko zein besteko erantzunak ditugu, baina gehienak Artzibar aldera leerratzen dira. Hona, aurrenik, *e + a* elkartzearen ondorioz eskuraturiko erantzunak: *semea*, *etxea*, *antxumea*, *txintxarea*, *erlea*, *kea*, *goldea*, *luzea*, *gaztea*, *aizea*, *ertzeak* eta *gerruntzeak...* kasu honetan *-ia* bukaerako batzuk baditugu ere: *alkatia*, *esnia*, *tzerrikumia*, *bidia*, *ugaldia* eta *urtia* (*urtea* ere bai), adibidez. Azkenik, *o + a* elkartzearen ondoriozko batzuk: *besoa*, *zangoa*, *zuloa*, *artoia*, *mandoia*, *olloa*, *Jangoikoa*, *saskitoa*, *astoia*, *oloa*, *gaixtoa* eta *beroa*, jarraiko hauekin batera: *bilua*, *lepuia* eta *agua* (*agoa* ere bai).

Arrietako hizkeran bada, egiturari dagokionez, ekialdeko zenbait mintza-moldetan bereziki maiz ikusi dugun joera bat, izenlaguna zenbatzailearen es-kuin aldera igarotzean gauzatzen dena; honela, *ardi on bat* moduko lokuzio baten ondoan, ardibidez, *ardi bat ona* gisako beste bat aurki dezakegu. Ilur-dozko hizkeran nekez dakusagu halakorik.

Ilurdozko berriemaileak, euskara erdi ahantzia izatearen ondorioz ziurre-nik, hitz mordoska beharrik gabe mugatzen zuen: *aitea, subea* ('sua', alegia), *festa, lanèa, gauziak, aurre onek, otza aundiek, aundie polite* eta beste. Halaber, ohiki -(t)s batez ahoskatutik aditu ditugun hitz batzuk -(t)z-z eman zi-tuen berak, bestela ezin izkriba zitekeen ustez: *aize* (aise), *azuri* (axuri), *lizue* (lisue) eta *matza* (matsa), adibidez. Interesgarria, hau dela-eta, halako batean aditzera eman zuen ustea geuk egin "No podemos ser ricos" moduko galde-rari erantzutean: *Ez, ez gaitze... ez gaizkigu izen abratsak, abra...-tzak!, abra-tsak no cae, pa escribir...* (- Sí, sí cae, sí; se escribe con ts, abratsak. No es 'abrat-zak', es 'abratsak' –erantzun genion–).

Berriemaile honek berak d eta r kontsonanteen arteko txandaketa behin baino gehiagotan egin zuen, *edo, arek, berak, paratu, eroa* –eta are *erran*– mo-duko hitzak, adibide batzuk aipatzeagatik, *ero, adek, bedak, padatu, edoa* eta *edan* bihurtuz.

Arrietako berriemaileak ere txistukarien arteko zenbait txandaketa egin ohi zuen, *gaitxik* edota *gitxentzen* moduko hitzak ahoskatzean zertu bezala, adibidez, horietako gehienak aditz batzuk jokatzean agerian utzirik ere: *txekola, etxaket, txidaten, (t)xuten, txadak, txe eta txire*, kasu. Ilurdozko lagunak ere hauen antze-ko ordezkapenen bat egin zuen inoiz, baina arrietarrak baino aise gutxiagotan.

Arrietako lagunak, halaber, *gaizki, gaizto, naiz* eta, oro har, z-ren bat ager-tzen duen hitz bat edo beste, *gaixki* (edota *gaiski*), *gaixto* eta *nais* bihurtu zi-tuen. Ilurdozkoa, honetan ere, balio txikigarria izan dezakeen *gaixto* hitzaren kasuan izan ezik, 'arritarra'ren joeraren oso azpitik ibili zen.

Arrieta eta Ilurdotz herriean, baina, bi-bietan, -a mugatzailea gehi -(r)en pertsona-genitiboa -ain bihurturik aurkitzen dugu, bokalarteko r-aren eror-ketaren eta ondorengo laburbilketaren ondorioz.

Erakusleei dagokienez, halakoek g- protetikoa eramatene dut gehienetan bi herriotan ere –Arrieta gehiago Ilurdotzen baino–, Aezkoan bezala eta El-kanon ere ohikoa zen bezala. Hona Arrietako adibide batzuk: *ur gau, lan goi, apez gura, lan goiek, gizon garek...* nahiz *etxe au, etxe oi, gizon ura* eta *mut(t)iko onek* moduko salbuespen batzuk ere badiren. Ilurdotzen honakoak ditugu: *aurre onek, gizon goi / gizon ori, etxe goi, zaku goi, gizon ure, apez ure, gizon garrek...*

Laburbilketak direla-eta, gure oraingo hau baino eremu askoz zabalago-an gertatzen den moduan, asko dira; honakoak bi herriotan bildurik gaude: *atra, abrats, batre, pezta, pastu eta atsalde*. Arrieta, horiez gainera, *beala, desin, Yinkua, iazi* ('irabazi'), *naut, nautena, nauzu, biaut eta biauzu...* Ilurdotzen, *bezperatra, Yainkäa, limixko, iretzi* ('irabazi'), *akatu, nauzu, nauk, biaut...* baina *nai dutena*.

Laburbilketa eta metatesia, ia erabatekoa gainera, agertzen da Arrietako adibide hauetan: *ineunt, emateunt, ekartzeunt, atratzeunk, jinestatzeunk, yar-dukitzeunzu, errateunte eta estudiatzeunte*, inoiz *iten dut* moduko era arrun>tagoa bildu badugu ere. Joera hau ez da agertu Ilurdotzen, Eguesibarko El-kanon aski ezaguna bazen ere.

Bi herriotan ere, laguntzazko -(r)ekin atzizkia ia beti horrela dakusagun arren, inoiz edo behin bukaerako -n horretaz gabeturik aurkitu dugu.

Edo juntagailua dakusagu ditugun adibide urriean, aurkakotasuna agerikoa izan arren; Arrietakoa da lehen adibidea: aizkideak... galdir zuté yá... egia zén edo gezírra zén, eta Ilurdozkoa bestea: aéxkiák galdir tzíre égia zén edo gezírra.

Instrumentala ez da behar bezain finkaturik agertzen: batzuetan *gabas* aditzen dugu, adibidez, eta beste batzuetan *gabaz*.

Honekin loturik, eta *au > ab* hori Arrieta zein Ilurdotzen agertu bada ere, azken herri honetan *labetanogei* moduko hitza aurkitu dugu halaber.

Batzuetan *joan*, bestetan, *yoan, fuan...* Batzuetan *agos*, bestetan *abos* edo *aboz; jente, gente* edota *žente*, azken hau horrela izatea bitxi iruditzen bazaigu ere. Dotoreziaz esan nahi izana agian?

Bi herriotako berriemaileek erabili dute, gisa berean, *eman dira / dire yatera eta edatera* moduko egitura, inguruko mintzaeretan ere ezaguna, bestalde.

Gure materialetan ohikoa ez bada ere, *-t(z)era* bukaerako adizki bati egokituriko osagarri zuzenak genitibo gisako atzizkia hartu du Arrietako adibide batean: *zapetein garbitzera*, eta Ilurdozko beste batean: *amain ikustera*. Iruñeko Txantrean behin baino gehiagotan ikusi genuen Anozko (Ezkabarte) andre batek ere antzeko esapidea erabili zuen behin, ohiki egin ez bazuen ere.

Arrietako berriemaileak, ‘ibili’ aditza oinarri harturik, *ibiltzen, iltzen, era-biltzen...* moduko aldaerak erabili zituen esanahi berarekin.

Ilurdozkoarentzat *erauntsi* berdin zen inork zerbait jaistea edo inor, lagun bat bera, nonbaitetik jaistea.

Arrieta zein Ilurdotzen, bietan, *-tu* bukaerako partizipioek geroaldia irudikatzeko *-ko* atzizkia hartzen dutenean *-tiko* egiten dute, ia salbuespenik gabe: *makurtiko, allegatiko eta gelditiko* moduko adibideak ditugu, adibidez, Arrieta, eta *kanbiatiko, allegatiko eta sinestatiko* Ilurdotzen.

Aferesia dela-eta, aditz batzuen lehenengo hizkia galdurik dakusagu maiz Arrieta zein Ilurdotzen, *torri, karri, kusi eta man* moduko kasuetan bezala, baina hau aldizka baizik ez da gertatzen, *etorri, ekarri, ikusi eta eman* gisako hitz osoak ere ohikoak baitira. Arrieta, hala ere, *ezaundu/zautu eta ekendu* dugu (*kendu* ere bai, baina gutxiago); Ilurdotzen, *zautu eta kendu*.

Zeharkako galderetan aditz laguntzaileak behar lukeen -(e)n ez da beti agertzen. Arrietako lagunak, honetan, Ilurdozkoak baino zuzenago jokatu zuen, honek, adibidez, halako batean *nik yákin biaut, zú nór záren* emanik ere, beste batean *nóla diré eta zértako díre* baizik ez zuen eman. Bi herriotan ere, bestalde, ustez bukaerako -(e)n baten premian den harridurazko erantzun asko xamar halakoaz gabeturik aurkitzen dugu; Arrieta, adibidez, *zénbat biar díunes... mut(t)iko onék!* dugu, eta Ilurdotzen *zénbat biár díu áurre onék!*

Bi herriotan, halaber, iraganaldiko aditz laguntzailea, orain *-n-duna* orain *-n* gabekoa dugu: *ze / zire* edota *zen / ziren*, adibidez.

Nominatibo-ergatibo kontuetan ere akats handiak ikusten dira, bataren ordez bestea agertzea gauza aski arrunta baita, euskaraz denbora luzean mintzatu gabe egotearen ondorio makurra gure ustez, neurri batean bederen.

Aditz laguntzailearen erabilera ere, Arrieta zein Ilurdotzen, bizi higatua agertzen zaigu, objektu pluralarekiko kezka handirik ez baitzuten erakutsi berriemaileek; izan ere, “Tiene muy buenas manzanas” moduko galderari

Arrietako lagunak *sagárrak*, ónak... dú órrek erantzun zion, eta Ilurdozkoak étxe ártan *báduté sagár ónak*.

Bi herriotan halaber, aditza jokatzean, komunztadurariak gabeko esaldi batzuk aditu ditugu; Arrieta, adibidez, *mázteák ikùsi zuté gizónai*; Ilurdotzen, berriz, *dénei laúntzen dízu atrázen*.

Aditzarekin jarraituz, ‘nor-nori-nork’ saileko ‘hark hari’ eta ‘hark haiei’ kasuetan islatzen da bi herriotako aditzaren arteko differentziarik gehien: Arrieta aditu ditugun era honetako aditz laguntzaileek *-ako-* dute ezaugarri orainaldian eta *-eko-* iraganaldian, Ilurdozkoek *-io-* duten bitartean. Arrietako adibideak dira, esaterako, *dakot*, *dakok*, *neko*, *zeko* eta *zekote* moduko erak; Ilurdozkoak, berriz, *diot*, *diok*, *nio*, *zio* eta *ziote*.

Aldi gehienetan, gainera, ‘nor-nori-nork’ saileko eraren batek ‘nor-nork’-eko beste bat ordezkatu du, “Tengo que matarte o morir” gisako galderari emaniko erantzunetan ikusi bezala, Arrietakoak zera eman baitzuen: *il biar dizút bertzénaz... zuk... illén dirazú*. Ilurdotzen *nik il biár dizút zúri edo... o ní ilen naiz*.

Lexiko kontuan ere bada bi herriion arteko differentziarik. Jarraian legin batzuk parekatuko ditugu elkarrekin, aurreneko hitzak Arrietakoak eta bigarrengoa Ilurdozkoak direla esan ondoren: *ausarki – gorki*; *aufer – alfer*; *topatu – opatu*; *arrosi – erausi*; *oartu – auteman*; *butzu – putzu*; *daus – ja* eta *jai*; *dilindan – tzilintzen*; *edatu* eta *esparbatu – barnatu*; *egu – egun* eta *gaur*; *mazte – maztekie*; *entregu* eta *trebe – abile*; *sukrea – azukeria*; *korputza – gorputze*; *itai – igitei*; *iotu – errrotu*; *itxor* eta *intxor – etzaur* eta *eltzaur*; *yosta – tosta*; *kutxeta – kuste*; *nion – iñon*; *nior* eta *ñor – iñor*; *bikor – pikor*; *jinestatu – sinestatu*; *arrapa – arropa* eta *erropa*; *ordots – aketz*; *aratxe – txokorro*; *zilo – zulo*; *zula – zure*.

DATUEN TRANSKRIPZIOAREKIKO OHARRAK

Ia aditzen ez diren hizkiak, lehenagoko beste lan batzuetan egin dugun bezala, parentesi artean idatzi ditugu.

Bokal batzuen itxierak: *a* eta *e* artekoa *ä* idatzi dugu; *e* eta *i* artekoa *ë*; *o* eta *u* artekoa, *ö*. Inoiz *i* baten irekiera ere *ë* idatzi dugu, *artzaëa* edo *anaëa* kasuetan bezala, adibidez. Azkenik, *i* eta *u* arteko bat aditu uste izan dugunean, *ü* idatzi dugu. Azken honek bitxi samarra iduri badezake ere, oroitarazi nahi dugu Bonaparteren eskuizkribuetan, hitzek artikulua hartzean zernola jokatzen zuten adierazteko hark idatzi zuen orri batean⁵ zera ikus daitekeela: “Uriz: á, éá, íá, óá, úá”, azken honen kasuan, *u*-aren gainean eta tildearen azpian, puntutxo bat agertzen dela.

Bi eratako azentuak erabili ditugu: indar edo intentsitate handikoa (‘), bat, eta hori baino txikiagokoa (‘), bestea.

Lan honetan agertuko diren galdera-erantzunetatik batzuk –laurogeita bost, zehazki– lehen aipatutako “Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua...” lanean, aspaldixko atera zirela esan dugu. Oraingo honen eta orduko haren artean, baina, differentzia xume batzuk badirela aitortu beharrean gara, une batetan zein bestean izaniko pertzepzioen arabera, noski; ez dira, alabaina, garrantzi handikoak gure ustez.

Galdera batzuk behin baino gehiagotan egin beharraren premian aurkitu gara inoiz, lehen aldian berriemaileek emanikoak osatzeko, hobetzeko edota

⁵ “Bonaparte ondareko eskuizkribuak – Hegoaldeko goi-nafarrera” izenburuko liburuetan, hain zuzen.

argitzeko asmoz. Guk iradoki hitz eta lokuzioak –halako proposamenak egi-tean beti asmatu ez badugu ere– letra etzanda erabiliz idatzi ditugu, hainbat erantzunen bukaera aldean. Zenbait aldiz, haatik, geure galderak ere idatzi ditugu, berriemailekin izaniko elkarritzetaren berri zehatza agerian uzteko. Gainera, berriemaileek berek, euren zereginetan, inoiz gaizki abiaturiko esaldiak edota, behin abiatuz gero, edozein unetan egin dituzten etenaldiak ere lerro hauetara ekarri ditugu, zenbait pasarte itxuraz zail samarretan agerian utzi dituzten zalantzak, mugak edota gabeziak aditzera emateko.

Inuesta hauetan egitean José Estornés zenak aurrez erabili hitz batzuk –Erronkariko edo haren inguruko herri-izen eta abizen batzuk, besteak beste– egokitu egin genituen, gure bi berriemaileoi, izenok nolabait hurbilduz, gauzak errazteko. Horrela, galderak egitean, Estornések ‘Isaba y Uztarroz’ moduko aipamena egin zuen kasurako, adibidez, Arrietako lagunari ‘Arrieta y Villanueva’ proposatu genion eta Ilurdozkoari ‘Zuriain y Larrasoña’.

Aurreneko ekarpentan Estornésen bost galdera-sortetarik lehenengo hirurak agertzen dira, gainerako biak hurrengorako utzi ditugula.

LEHENENGO GALDERA-SORTA

- | | |
|-----|---|
| zk. | gaztelerazko galderak eta euskarazko erantzunak |
|-----|---|
- 1 Por las mañanas me lavo
 Arrieta: góizetán, garbítzen naiz
 Ilurdotz: goízétan garbítzen náiz
- 2 Ella se peina las trenzas
 Ar.: béra... orraztátzen dá, trénzak itèko
 Il.: bérak... biluák, biloák, lúziák, orrázten dá, orrázten tú bérak
- 3 Los hermanos se quieren mucho
 Ar.: anáeak máite diré ánitx
 Il.: anáiak... ná'izeten díre óndo / *óngi*
 Berriemaile honek adinean aski aurreraturik zela Urnietako Aita Salestarretan eskolan igaro zuen denboran –urte pare bat edo– ikasi bide zuen Esteribarren ohikoa ez den ‘ondo’ hori, harekin izaniko elkarritzetan maiz askotan erabilia eta, ondorioz, bion artean eztabaidatua.
- 4 Los niños se ensucian con barro
 Ar.: mut(t)íkuak, zikí(n)txen diré, loéakin
 Il.: mutíkuak zékíntzen diré lóiekin
- 5 El loco se tiró al pozo y se ahogó
 Ar.: èroá, botá zé... botáu zé...bútzurá, ta án itó ze
 Il.: èroák, èdoák, bóta zé putzúre eta... *íto zé*
- 6 Aquel hombre se suicidó
 Ar.: gizón garé(k)... il tzé... bére kontuán?... bére kontúra
 Berriemaile honek zenbait alditan –oraingo kasuan bezala– galdera-doinua erabili zuen hark berak eman erantzunerako onarprena eskatuz bezala edo, eta galdera bera ongi ulertua ote zuen frogatzeko beste zenbaitetan.
 Il.: gizón úre íl tze; *bére bírue* íl tzue...
- 7 Los chicos de Isaba y de Uztárroz se pegaban la víspera de Reyes (los de Arrieta y Villanueva / los de Zuriain y Larrasoña)
 Ar.: Arrítako mut(t)íkoak eta... Irebérrikuak, erré-bezperán... yó zi-ré(n)? / *yótzen* ziré(n)

Egun horretan izan ez bazen ere, herritarren arteko liskarrak agerian jartzeko balio duen ixtorio titiki hau kontatu zuen behin berriemaile artzibartarrak: *Ára, tòrtzen ziré, Irebérriko mutíkōak, eskólara, ta... etxéra joàten zirélaik gú, gibéltik, aitxíkóaldíkoak, arríkoaldíkoak; ta géro, géro dénak asàrratuik! mutikoak eta dítak eta denák: "arritarrák, urdéak! ladrónak!..."* (- Eta zergatik hori, zendako?)
 - Zéngatik? juatén ginén... mutiko aén gibeleti, aitxíkóaldíkoak... génbera... àrtzen zélaik, gu... gañetik, hálá! bértzeak lástér, èskapú!... di Yáinkua!

Il.: Zuríngó mutíkuak eta Larrasóinguak... yotzátzen zíre, yotzátzen tzíre... errégeak, bézperatáko érregián, o bézperatráko festán, o errége-egúnian yótzen tziré.

- 8 Nos veremos mañana
 Ar.: biár kúsiko gára
 Il.: ikusíku (sic) gará biér
- 9 La estrella brilla
 Ar.: izérra... argítzen dú
 Il.: izérrak argítzen dú
- 10 Subió todas las escaleras
 Ar.: eskaléak... eskaléra denák... gorá, ián tze... o pàstu zé? / eskaléra gúziak pàstu zé?
 Il.: igéntu zítue eskále guziék / igén...
- 11 Lleva un pan a casa de Sabuqui (de Ernandorena / de Erlarena)
 Ar.: mán zazú ogí bát... Èrnandorénaren etxéra
 Il.: ik... mán tzak, emán tzak ógi bét Erleáne...-kó etxéra
- 12 No a casa de Sabuqui (Ernandorena / Erlarena) sino a casa de Benigno (de Paulorena)
 Ar.: ez... Èrrandoréna, ez, Pàularéna; Pàuloaréna
 Il.: ez, Èrleenéko itxéra ez, Póulonéku etxéra
- 13 Vamos a entrar
 Ar.: sártu biár dugu
 Il.: guázin sartzéra; órai guázin sartzéra
- 14 Vamos a seguir haciendo la casa
 Ar.: etxéa in biar dúgu? / séitu biar dugú, ya... íten dugún étxea
 Berriemaileari, aurrenik, “Vamos a hacer la casa” galduen genion; horregatik han hasierako erantzuna.
 Il.: guázin altzíne étxe itéra, itéra o íten
- 15 Los amigos se preguntaban si era verdad o mentira
 Ar.: aizkídeak... galdíten zuté yá... egía zén edo gezúrra zén
 Il.: aéksiák galdítsen tzíre égia zén edo gezúrrre
- 16 Me ha dado de comer y de beber
 Ar.: emàn dirá yáterá, ta... edátera
 Il.: emán diré yáterá eta edatéra
- 17 De mucho comer le vino el mal de estómago
 Ar.: sóbra yán, ta géro... trípako minák
 Il.: áunitz yanéz, emán tzió... míne estómagoai / etórri zékió estómagoiko míne
- 18 Le ofreció de comer
 Ar.: ya... máin xekolá yaterá? errán tzakón... ‘emáin dizút yáterá?... o bazkàltzera?’ / eskíndu es... ‘ofrecer’: bazkàltzerá máin txekóla
 Il.: eskíndu zió yáterá
- 19 No dejaba de trabajar

- Ar.: lâna etzué úzten
 Il.: étzue úzten lánëan, lânëá íten
- 20 No se debe avergonzar de decir la verdad
 Ar.: ník enáiz... àlketzén, egía errateko? / ézta alkátzen (sic), ez, egía erráteko
 Il.: eztá alkétu biár egíe erráte, errátian
- 21 Acaba de llegar
 Ar.: orái bérían ellégatu da... o etórri dà
 Il.: etórri dé àextían, àixtian
- 22 Acaba de morirse el perro
 Ar.: txakúrra órai bérían íl da
 Il.: akabátu dé iltzén tzakúrre; tzakúrre il dé àixtián
- 23 Al llegar a casa lo haré
 Ar.: etxéra... ellegátzen náizéla, inéunt lán goi
 Il.: itxéra ellegátzen náiz... ínen dut
- 24 Al oír esto se enfadaron todos
 Ar.: óri... aitú zutéla, dénak... enfadátu zirén / *asarrátu* zirén
 Il.: aitú zuténéán, enfadátu zíre dénak
- 25 Más valiera no haberlo hecho
 Ar.: óbe zu ézpazu... ézpazu aláko lán egín
 Il.: obéki egoín tzé in gébe
- 26 He empezado a andar
 Ar.: asi náiz... eréltzen
 Il.: gáur, ni, ási nítze erabiltzen; ni, ási néiz íltzen / *ibiltzen*
- 27 A todos les ayudas a salir
 Ar.: déneí, laùntzen dakón?... atrátzera
 Il.: dénei laúntzen dúzu atrátzen
- 28 Les mandamos venir
 Ar.: erráten dakotét tortzéko?
 Il.: laúntzen diótugú... *manátszen* diótugú tórtzeko
 Itxura desegokiko aditz laguntzaile honek balizko ‘diotegu’ bat gogora ekar dezake ere, berriemaileak, Yrizarrrentzako aditzak bildu genizkionean, *diogute* eman zigun, era honetako datu-bilketak egin ziren Esteribarko herri dexentean eta Erroibarko zenbaitetan ere ohikoa suertatu zena. ‘Diotegu’ hori, haatik, bildua izan da halaber baina esparru honetatik mendebalderanzko norabidean beti ere.
- 29 ¡Qué hermoso niño!
 Ar.: zé mutíko edérra!
 Il.: zé... mutíko edérra!
- 30 ¡Cuánto necesita este niño!
 Ar.: zénbat biar dú nes... mut(t)íko onék!
 Il.: zénbat biár dú áurre onék!
- 31 ¡Cuánto lo quería su madre!
 Ar.: béré amák zéin máite... zuen!
 Il.: zénbat nai zió béré amák!
- 32 ¡Qué a gusto fuma!
 Ar.: ze gustóan pipátzén zu (!) / gùstorá àitzen dá pipátzen
 Il.: zéin kontént... èrretzén dú zigárroa!
 Gure proposamena onarturik ere, litekeena da berriemailearen erantzuna zehatzka ez izatea.

- 33 ¡Qué feo el jabalí!
Ar.: bàsurdía itsúsia dá!
Il.: zéin zakárria basúrdia!
- 34 ¡Qué necesidad hay en una casa!
Ar.: zé bëárríak (!), zenbái(t)... biárrá, étxe on, etxé bátean!
Il.: zé lán báda étxe batíán!; zé lának... bádiré étxe batíán!
- 35 ¡Qué buena lluvia a caído para las patatas!
Ar.: uré, eráuntsi edérra... èrori dá, patátaendako!
Il.: zé eúri óna etórri dé patáta... patáta óndo, óngi... atertzéko, óngi... óngi sortzéko
- 36 ¡Cuánto llueve!
Ar.: zénbat éurik ín dugu (!)
Il.: zénbat éuri, éurie itén du!
- 37 ¡Qué calor hace!
Ar.: ze béroa íten dú!
Il.: zé béröa íten dú!
- 38 ¡Cuánto niño, cuánta gente vino!
Ar.: mutíko ausárki... bàdirá, ta... yènde aunítz etórri da!
Il.: zénbat mutíköak, zénbat yéndia etórri zé!
- 39 ¡Cuánto conocido tenía!
Ar.: zenbát... zénbat ezáunak túzu? / zénbat ezáunak zuén arék!
Il.: zénbat záuntzen tzíre; zénbat záun tzitué gizón garrék!
- 40 ¡Qué bien!
Ar.: zéin óngi!
Il.: zéin óndo! zéin óngi!
- 41 Hace calor
Ar.: beróa iten dú
Il.: íten dú béroa
- 42 Hace grandes fríos
Ar.: ótz aundíak iten dú
(- 'Itén du' edo 'iten tu'??) - *Ótz aundíak iten dú*
Il.: íten dú ótza aundíek
(- 'Itén du' edo 'iten tu'??) - *Itén tu, más bien*
- 43 Ha escampado
Ar.: oráë... atérdu da
Il.: atérdu dú
Hiru aldiz bildu genion *atérdu* hori horrela, *d*-rekin.
- 44 (Estornésen zerrendan ez dira ez galdera hau ez hurrengoa agertzen)
- 46 El tiempo está lluvioso, ahora ha despejado
Ar.: denbóra, eúriak... denbóra du / denbóra, eúrietakó... buélta
Il.: denbóra dágó éuriz... éuritzeko
- 47 Aquí hace falta lluvia con mucha frecuencia
Ar.: emén euría... biar dú, ausárki ta... eúria biar dú...
Il.: emén eúrie ín biar dú maiz
- 48 Los campos quieren lluvia
Ar.: alórrak náute euría; euría fálta
Il.: lúrrek biár dutú máiz éurie / biár *dute* más bien

- 49 Se han adelantado las lluvias
 Ar.: euríak... sóbra, a tiempo eròri diré, o tòrri diré / *altzíndu diré*,
 bai, sóbra altzíndu diré / geró, beránt... eùriák berán(t) etòrri diré
 Il.: éuriék altzíndu díre
- 50 Ha llovido mucho
 Ar.: ánitz... eúri itén du; o in dú
 Il.: éuritu dú áunditz; eurítu dú áunitz
- 51 Se ha empeorado el tiempo
 Ar.: dènborá... gaitzerá eman dú
 Il.: denbóra txártu... txárdú de
- 52 Pronto se derretirá la nieve
 Ar.: elúrra... desín diré, o desín da / elúrra fíte juain dá
 Il.: zálui fuáin dé elúrre; elúrre úrtzen da o bádaye / *ùrtiko dá...* zá-
 lui elúrre
- 53 Pronto obscurecerá
 Ar.: beála... il(l)undíko dá
 Il.: zálui ilúndu... ilúndíko da
- 54 Pronto se hará de día
 Ar.: fíte... argitíko dá
 Il.: zálui inen dá egúne, egúnez
- 55 Habrá tempestad
 Ar.: égu... gáur denbóra makúrtiko dá; eráuntsi gáixto zenbáit tòrri-
 ko dá
 Berriemaileak, hasieran, “Habrá que empezar” ulertu zuenez, zera bota zuen:
Ási bëarko dugú, yaikí ta... alpórtxak prèstatu? joatéko alórrerá?
 Il.: izéin dé... eráuntsi bét izéin de
- 56 Hace tiempo seco
 Ar.: denbóra idórra... íten dú
 Il.: íten dú denbóra idórra
- 57 Ha tronado mucho
 Ar.: ortóska... ortós... áundia iten dú, áni(t)z... íten du
 Il.: ín du ortós áunitz
- 58 Ha relampagueado mucho toda la noche
 Ar.: gáu gúzian àitu dá... ïñaztúrak íten
 Il.: izérzu dó... izérzu bát ín dú, ha hecho un relámpago
 Beste egun batean, baina, azken hitz hau izendatzeko *inezture* erabili zuen.
- 59 Ha empezado a soplar el cierzo
 Ar.: íperr...-áldea asi dá, íperrálde
 Il.: ikésu dú, *ási* dú, ikésu gú (!) izárra... (zuzenduz:) ifárra tórtzen
- 60 Ha parado el viento
 Ar.: aiziá... barátu da... o geldítu da
 Il.: barátu dé áizia
- 61 El tiempo seguirá igual
 Ar.: denbóra... óla-óla segítíko da
 Il.: denbóra ínein dú... órai bezála
- 62 El tiempo cambiará a bueno o a malo
 Ar.: denbóra... zétara emain dú? ónera edo gáitzéra?
 Il.: denbóra... kanbiátko dú onéra ero gáix... gaxtiéra

- 63 En estos tres días ha llovido
 Ar.: íru egún ebetán, egúria iten dú... o in dú, ausárkiro
 Il.: íru... egún-egúten... íru... *egún ebetán* eurítu dú
- 64 En estos ocho meses no lo he visto
 Ar.: zórtzi ilabéte ebetán, eztút ikúsi
 Il.: zórtzi elibéte... ilebéte ónetán eztút ikúsi
- 65 Todas las veces que viene canta en la puerta
 Ar.: aldiéro tòrtzen deláik, kantàtzen dú atárian
 Il.: tòrtzen... bétiko aldítan ('aldëtan' aditzen da) tòrtzen délaik, kan-tátzen dú atarén / *aldiéro*
- 66 Ha pasado cuatro meses en la borda
 Ar.: láu ilabéte pàstu dú... bordán, etxéra tórri gabe
 Il.: pasátu dú láu ilbéte bòrdan
- 67 He pasado tres años en Ochagavía (en Uriz / en Zubiri)
 Ar.: íru úrte pàstu út... Urítzen
 Il.: pasátu dút íru úrte Zúbrín, Zubríen; hay un pueblo que se llama Zubiri, y... en vasco, pues Zúbri le llamaban
- 68 Han venido muchos hombres
 Ar.: gizón aúntiz, tòrri diré?
 Il.: etòrri diré gizón áunitz
- 69 Ha venido un rebaño de ovejas
 Ar.: ardí-saldo át, etòrri dá
 Il.: etòrri dé ardí-saldó bat
- 70 Ha habido muchos curas en la misa
 Ar.: áni(t)z apézak... ïzan diré mézan
 Il.: izén dá apéz aúntiz mézan
- 71 Hemos tenido muchos niños
 Ar.: áurr ánitz ïzan dugú
 Il.: izén tugú mutíko aunitz
- 72 En casa de Pedro todos son labradores
 Ar.: Pedróin etxeán, dénak diré... langíllëak, alorréko langíll(e)ak
 Il.: Pédroin etxán dénak díre nekazárieck
- 73 En casa de Juan todos son pastores
 Ar.: Juánen etxeán dénak diré artzáëak... o artzáñak
 Il.: Yoánen étxan dénak díre artzáiak
- 74 Los de Algarra son almadieros (los de Urdiroz / los de Urdaniz son es-quiladores)
 Ar.: Urdirózköak len eré... motzálëak, Urdírotzen / Urdirótzen, dé-nak diré motzáleak
 Il.: urdéíztarrák⁶, dénak díre motxáleak
- 75 La hija de Anaut es comerciante (la de Zabalza / la de Orradre es mo-linera)
 Ar.: Zabálzain àlabá, dá errótazáëa
 Il.: Orradréin... alába dá *errotárie*; naùsiéin alába dá errotárie

⁶ Hitz hau dela-eta, gure "Hegoaldeko..." lanean, kasu honetan, *urdáiztarrák* idatzi genuen.

- 76 Guillermo es panadero
Ar.: Gillérmo dá... okiná da, okín... 'goái okínaerà, ógi batén bíla'
Il.: Gillérmo dá, oláko etxeán itén duté ógie
- 77 Felipe era herrero
Ar.: Felípe zé... arótza
Il.: Felípe zé arótza
- 78 El otro es carpintero
Ar.: bèrtzea dá... zurgína
Il.: bertzáea dá zurgíñe
- 79 Aquél es carnicero
Ar.: úra dá... àrragitárra o... ¿cómo era? / *arakináëa*, bai... *arákiña*
Il.: úre dá... àragié, saltzen dú arágie
- 80 Su padre era cantero
Ar.: áren... aitá zé... argína
Il.: béré áite zé argíñe
- 81 Bajar y subir inútilmente
Ar.: ián ta... sautsí, aférei kàbe
Il.: iyén eta... iyén eta béiti... jaiétako
- 82 Trabajar para nada
Ar.: aitú lanián daustáko
Il.: lán íten játeko; lán íten dú jáietako, jài erétako
- 83 No sirve para nada
Ar.: dáustako éztö bálio
Il.: eztú... árek íten du... íten duén lána ézta balió jáietako / *eztú* bálio jáietako
- 84 Lo han puesto en claro
Ar.: paràtu biarko té, parátu bearko té... ¿cómo diré?...
Il.: parátu dûte, padátu dûte garbien
- 85 Lo han descubierto
Ar.: _____
Il.: zaútu duté eztéla bálio jái ere
- 86 Es muy fácil
Ar.: áisa da
Il.: adék in dú, adék íten dú... aíxe; aíse íten da
- 87 Es muy difícil
Ar.: ézta... ézta nólanái... ítteá ero kústerà, kústëa
Il.: dá gáizki, gaizkixe itéko, es un poco difícil de hacer
- 88 No es tan fácil
Ar.: ézta ain... ézta ain áisa, e?
Il.: eztá aín aíze
- 89 Lo hicimos fácilmente
Ar.: ín gindué... gústora, áisa
Il.: gük in *gíndue* áize / *áise*
- 90 No tengo facilidad para ir ahora
Ar.: orái... enáike juan; zártu náiz
Il.: eztút áise orái yoatéko
- 91 Hablo con facilidad
Ar.: yardúkitxen (sic) náiz... áisa

- Berriemaileak aldi honetan ‘nor’ saileko aditz laguntzailea erabilirik ere, hurrengo esaldian ‘nor-nork’ekoa eman zuen.
- Il.: yardúkitzen dút, nik, áise
- 92 Él habla fácilmente pero trabaja muy mal
 Ar.: yardúkitzen dú... ongí baña, langíl(l)e txarrá
 Il.: ádek, bédak, bérak, yardúkitzen dú aíse eta lánëan ézta... dá gútiko
- 93 Llegaremos de día si vamos deprisa y de noche si vamos despacio
 Ar.: eraíxten bagará prisák, egúnes ellégitiko’rá, aláko tokía; gábas... gába allegáitiko’rá, torríko dá, errepóski juáten bada / errepóski juáten bágra, gába... torríko dá
 Il.: yoáin gerá... yoáin gerá egúnëan, yoatén gará príseka; yoáten *bágará* príseka ellegáitiko’ará egúnian, o egúnes, egúnez... egúnez más bien; yoáten bágará príseka ellegáitiko’ára egúnian; de... gábas, elle-gáitiko’ára gábas, yoáten bágará mántso, mántsoak, mántsoan
- 94 Hay que hacer las cosas necesarias
 Ar.: biár dirén gauzák ìn biar dugu / ín biar dugú, gauzák...
 Il.: ín biár diré gáuzeák... gáuzeák, mántso, mántsoa; eín biar diré gáuzék... gáuzeák, gáuziák, bérar dírenak
- 95 Tiene que venir
 Ar.: tórri bearko dú / orái bérían, torríko da... o tórri bear du
 Il.: bérak, bédak, etórri bear dú
- 96 Es muy necesario
